

**Hezkidetzeta eta genero
indarkeriaren prebentzioa lantzeko
jarduera-plana**

Antonio Trueba IPI

2019-2021

Aurkibidea:

1. Justifikazioa
2. Helburu orokorrak eta zehatzak
3. Jarduera plana
4. Ebaluaketa eta memoria

1. JUSTIFIKAZIOA

Azken belaunaldi honetan emakumeen eta gizonen parekidetasuna lortuta dagoenaren ideia zabaldu egin da. Egia da, aurrerapen handiak egin direla (batez ere mugimendu feministak eta erakundeek, programak, ekimenak eta legeak egiteaz arduratu zirenean) bai emakumeek lan-merkatuan parte-hartzeko bai hezkuntza eta kultur maila guztietara heltzeko eskubideak bermatzeko.

Hala ere, egoera horietan sakontzen badugu ohartuko gara parekidetasuna oraindik ez dagoela lortuta. Erabakiak hartzeko esparru gehienetan gizonak egoten dira, etxeko lanetan eta zainketetan oraindik desoreka handia azaltzen da, emakumeen aurkako indarkeria gora doa (batez ere gazteen artean), eta abar.

Horrek esan nahi du, oraindik gizartean, lan handia dugula parekidetasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. Modu honetan, eskolak leku pribilegiatuenak eta estrategikoenak bihurtzen dira parekidetasun bidearekin hasteko. Izan ere, biztanle guztiak igarotzen dira sistema honetatik eta eskolak duen ahalmena pertsonen garapen integrala bultzatzeko ukalezina da.

Badakigu hezkuntza-sisteman aurrerapenak egon direla; batzuen ustez eskola mistoaren ereduarekin nahikoa izan da parekidetasuna lortzeko. Baina egia esan, eskolako espazioak eta eguneroko praktikak kolokan jartzen dituzte parekidetasunaren bideak. Horregatik, “eskola mistotik” eskola “hezkidetzaila” izatera heldu nahi dugu.

Hausnarketa sakona egiten badugu, konturatuko gara hainbat esparrutan lana oraindik dagoela:

- Gure curriculumean eta erabiltzen ditugun testu-liburu eta material didaktikoetan genero-ikuspegia txertatu.
- Espazioen kudeaketan genero-ikuspegia txertatu.
- Gure ebaluazio metodoak berraztertu genero-ikuspegia aintzat harturik.

- Gizartean hizkuntza aztertu genero-ikuspegitik.
- Ikasle-irakasle harremanak eta eguneroko praktikak (sexistak eta ez sexistak) identifikatu eta aztertu genero-ikuspegia aintzat harturik.
- Genero baldintzapean gabeko orientazioa eskaini.
- Aniztasuna bermatu eta genero ikuspegia sartu, neska eta mutil guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea ziurtatuz.
- Hezkuntza afektibo-sexuala eskaini aniztasun sexuarean eta emakumezkoen eta gizonezkoen parekidetasunean oinarriturik dagoena.
- Genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen identifikatu eta biktimei arreta egokia eman.

Hau ikusita, Antonio Trueba IPIk azken hiru urteotan erabaki bat hartu zuen: “Gure eskola mistoa hezkidetzaille bihurtzea”.

Gure errealitatea gizartean bizi denarekin bat dator. Neska eta mutilen arteko harremanak gehienetan ez dira berdintasunean ematen: haien jolasak sexu-roletan oinarritzen dira eta ume batzuk bere roletik ateratzen direnean erasoak sufritzen dituzte.

Horrez gain, gizartean: etxean, komunikabideetan,... jasotzen dituzten ereduak ez dira batere onuragarriak. Sexismoa eta rol estereotipatuak transmititzen dituzten ereduak dira.

Egia da, honelako egoerak tutoretzetan landu egin direla, baina gehienetan modu isolatuan eman dira. Benetan eraginkorrak izateko, eskola osoa inplikaturik dagoen proiektu edo plan bat garatu beharko genuke.

Hori garatzeko, alde batetik sortutako egitura aprobetxatu beharko genuke hezkidetzaren proiektua koordinatu ahal izateko. Horrez gain, eskolako egoera sakon aztertu beharko genuke (ahuleziak eta sendotasunak atera) proiektuaren lehentasunak

atera ahal izateko, ahuleziak helburu bihurtuz. Ez dugu ahaztu behar proiektua zabaldu beharko genukeela estamentu guztietara sentsibilizazio prozesu batekin lagunduta.

Hau guztia garatzen joango gara, kontuan harturik:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan, II. Hezkidetza-plana XI. Legegintzaldirako Gobernu Programan.
2. Aukera Berdintasunaren Plan Estrategikoak (2018-2021).
3. Ministroen Batzordearen CM/Rec (2007) 13 Gomendioa.
4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Konpromiso Estrategikoan (2016-2021).
5. Hezkuntza-sistema Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana.
6. Heziberri 2020.
7. 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
8. 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
9. 201/2008 Dekretua, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
10. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.
11. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoa.
12. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako.
13. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. plana.
14. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde Arteko II. Hitzarmena.
15. 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Kontuan hartuko dugu ere gure inguruan eskaintzen diren prestakuntza ekintzak eta laguntzak ere aprobetxatuz (Berritzeguneko mintegia, Udaletxeko ekintzak, beste erakundeetako prestakuntzak, Portugaleteko aisialdi taldea hain zuzen ere).

Hezkidetza II Planari dagokionez, proiektu hau egokitzen joango gara hobetzeko asmoz.

Hezkidetza ikuspegia agerian izan dituzten ekintzak

Antonio Trueba IPIk hiru ikasturte darama eskolako eguneroko bizitzan Hezkidetza ikuspuntua txertatzen. Haien artean aipatzekoak dira:

- 1.- Azaroak 25eko kanpainak
- 2.- Jostailuen kanpainak (Gabonetan parekidetasunean oparitu)
- 3.- Martxoaren 8ko kanpainak
- 4.- Maiatzaren 17ko kanpainak
- 5.- Ipuin eta material didaktiko berriak erosi (sexistak ez direnak)
- 6.- Unitate didaktikoak aztertu

Berritzeguneko Hezkidetza mintegian azken hiru ikasturteetan parte hartu dugu hainbat kanpaina eta ekintzak aurrera eramanda.

Horrez gain, Nagusitik antolatutako prestakuntzara ere joan egin gara, OOGko arduraduna ere parte hartuz.

Berritzegunek ematen dituen formakuntzaren 2 saio burutu ditugu, bigarren eta hirugarrena hain zuzen ere. Lehenengo eta bosgarrena 2019-2020 ikasturtean egiteko asmoa dugu, diagnosiari buruz direlako eta lehenengo pausua izan behar delakoan gaude. 2020-2021 ikasturterako laugarren saioa utziko dugu, komunikabideei buruzkoa.

Eskolako bestelako proiektuetan Hezkidetza ikuspegia txertatzen saiatu gara. Izan ere, jadanik Normalkuntzako proiektuan hezkidetza ikuspuntua kontuan hartzen

hasi gara. Horrez gain, tutoretza planean jadanik sartu egin ditugu kanpainen inguruan lantzen ditugun helburuak/ekintzak.

Antonio Trueba eskola, IPI denez, zailtasunak izan ditugu formakuntza edota ekintza batzuk aurrera eramateko, kreditu baliabiderik ez izateagatik, eta lehenengo ikasturtean koordinazioa eskasa izan delako. Bigarren eta hirugarren ikasturteetan batzordea osatu genuen (arduraduna, ziklo bakoitzeko irakasle bat eta zuzendaritzako kide bat), eta horrek HH, LH eta DBHko ekintzak aurrera eramateko lagundu digu. Askotan DBHn ez ditugu burutu HH eta LHko ekintza berdinak, ikasleen beharrak desberdinak direlako, baina beste batzuk burutu dira. Oraindik DBHn gehiago sakondu beharko genuke, eta bidean gaude.

Azken ikasturte hauetan eskola komunitatean sentsibilizazio maila altua lortu dugu, bai irakasleen artean, zein ikasle eta familien artean, beraz, oso positibotzat jotzen dugu, baina egia esanda, ezin izan gara heldu, nahi genuen txoko guztietara. Hala ere, batzordekideak baikorrak dira lortu diren helburuekin.

2. HELBURU OROKORRAK ETA ZEHATZAK

HELBURU OROKORRA	HELBURU ZEHATZA
<p>1. Gure eskola hornitzea hezkidetzazko eskola-eredua era koordinatuan bultzatzeko egiturez eta pertsonenez.</p>	<p>1.1. Prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko.</p> <p>1.2. Gure ikastetxean hezkidetzazko eta parekidetasunaren aldeko neurriak ezartzeko koordinazioko figurak eta egiturak garatzea.</p>
<p>2. Eskola mistoan eraldaketa-prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskola baterantz joateko</p>	<p>2.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.</p> <p>2.2. Eskolako txosten, erabaki eta ekintza guztietan genero ikuspuntua elementu estrategikoa bihurtu.</p> <p>2.3. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.</p> <p>2.4. Eskola komunitateko estamentu ezberdinen arteko koordinazioa bultzatu.</p>

3. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea

3.1. Genero-indarkeriaren sozializazio prebentiboa sustatzea

3.2. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria-mota guztiei azkar eta eraginkorki erantzuteko mekanismoak sortzea.

3. JARDUERA PLANA

Ondorengo jarduerak, 2019-2020ko ikasturtean zehar burutzeko asmoa dugu. Egiteke geratzen dena, hurrengo ikasturtean aurrera eramateko konpromisoa hartzen dugu.

Ikasleei zuzenduta aurrera eraman behar diren jarduerak berdez agertuko dira.

1. Helburu orokorra: Gure eskola hornitzea hezkidetzazko eskola-eredua era koordinatuan bultzatzeko egiturez eta pertsonaz.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	NORK	NOIZ
1.1. Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea trebatzea, beren esku-hartzeak hezkidetzaren genero-indarkeriaren prebentzioa aintzat hartuz egingo direla bermatzeko.	<ul style="list-style-type: none">• Hezkidetzaren genero bortizkeria ekiditeko eta sexu aniztasuna B03 Berritzeguneak antolatzen dituen eskualdeko bileretan parte hartu.	Arduradunak	Deialdiaren arabera
	<ul style="list-style-type: none">• Berritzeguneak eskainitako formazio moduluak (1 eta 5) egin. Horrez gain, diagnostikoa egin, genero ikuspuntutik abiatuta. Hori galdeketen bidez egingo da estamentu guztiekin.	Komunitate osoak	Lehenengo hiruhilekoa

	<ul style="list-style-type: none"> • Afektibitate eta sexu aniztasuna eta genero indarkeriari buruz , irakasle, familia eta jantokiko monitoreekin sentsibilizazio eta formazio saioak egin. 	Komunitate osoak	Berritzegune egutegiaren arabera
1.2. Gure ikastetxean hezkidetza eta parekidetasunaren aldeko neurriak ezartzeko koordinazioko figurak eta egiturak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola Kontseiluko, Parekidetasunerako Ordezkaria izendatu (eta ordezkariordea), familia taldeetatik. 		Izendatuta
	<ul style="list-style-type: none"> • Klaustroan pertsona arduradun bat izendatu hezkidetza eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lantzeko eta genero bortizkeria ekiditeko. Arduradunak programa horiek sustatu egingo ditu. 		Izendatuta
	<ul style="list-style-type: none"> • Parekidetasuna lantzeko koordinaketa batzordea sortu. Bertan gure hezkuntza komunitateko estamentu guztiak ordezkatzeko dira. 	Arduradunak OOGk Klaustroak Ikasleak	Ikasturtearen hasieran

	<ul style="list-style-type: none"> Eskolako Hezkidetza arduradunari baliabideak eskaini (ordutegian kredituak, aholkularitza, materialak...). 	Zuzendariak Berritzeguneak	Ikasturtearen hasieran
	<ul style="list-style-type: none"> Batzordeak plangintza bat proposatu eta ekintzak bultzatuko ditu. 	Hezkidetza batzordeak	Ikasturtearen hasieran

2. Helburu orokorra: Eskola mistoan eraldaketa-prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskola baterantz joateko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	NORK	NOIZ
2.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero ikuspegia gehitzeko hobekuntza-	<ul style="list-style-type: none"> Curriculuma genero ikuspegitik berrikusi, edukien gaitasunen garapenak ere kontutan edukiz eta ez bakarrik edukiak. 	Irakasleek	Ikasturtean zehar
	<ul style="list-style-type: none"> Ziklo bakoitzean, unitate didaktikoak, materiala zehatzak edo baliabide berriak berrikusi genero ikuspuntutik. 	Irakasleek	Ikasturtean zehar

<p>proposamenak lantzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Egoerak ikasleekin aztertu eta genero aniztasunari buruz, errespetuz eta enpatiaz hitz egin. 	<p>Irakasleek</p> <p>Ikasleek</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>
	<ul style="list-style-type: none"> Curriculum proposamenak garatu, data jakinetan (azaroaren 25a, martxoaren 8a, maiatzaren 17a) hezkidetza sistematikoki lantzeko. 	<p>Komunitate osoak</p>	<p>Data konkretuetan</p>
	<ul style="list-style-type: none"> LHko Hirugarren Zikloko ikasleentzat eta DBHkoentzat, Genero parekidetasuna eta aniztasuna lantzen duten Elkarrekin harremanetan jarri (Baketik, Aldarte, Abipase, Berdinduz...) 	<p>Arduradunak</p> <p>Hezkidetza batzordeak</p> <p>Elkarteak</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>

<p>2.2. Eskolako txostenetan eta ekintzetan genero ikuspuntua oinarritzat hartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gure eskolako hizkuntza idatzia egokitu, txostenetan eta komunikazio sistemetan: familientzako informazio txostena, web orria, familientzat oharrak.... 	<p>Hezkidetzatza batzordeak Irakasleek</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>
<p>2.3. Hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Azalpen guztietan, hizkuntza erabili, genero femeninoa ikusgarri eginez, hau da bi generoak erabiliz, eta ez bakarrik maskulinoa. Ahal den neurrian, generikoak erabiliz. 	<p>Irakasleek Ikasleek Jantokikoek</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>
	<ul style="list-style-type: none"> Batez ere, emakumeen adibideak azpimarratu. 	<p>Irakasleek Ikasleek Jantokikoek</p>	<p>ikasturtean zehar</p>
	<ul style="list-style-type: none"> Gelan edo beste lekuetan eman daitezkeen jarrera sexisten aurrean adi egon. 	<p>Irakasleek Ikasleek Jantokikoek</p>	<p>ikasturtean zehar</p>
	<ul style="list-style-type: none"> Orientazio akademiko profesionalari dagokiona, estereotipoen kontrako lanbide ereduak eskaini. 	<p>Irakasleek</p>	<p>Ikasturtean zehar</p>

2.4. Eskola komunitateko estamentu ezberdinen arteko koordinazioa bultzatu.	<ul style="list-style-type: none"> Ahultasun egoeretan dauden ikasleen portaerak behatu, kalteak ekiditeko (genero indarkeria jasan duten emakumeen seme-alabak, NEES neskak... 	Irakasleek	Ikasturtean zehar
	<ul style="list-style-type: none"> Gure Hezkidetza Plangintza estamentu guztietan zabaldu. 	Zuzendariak Arduradunak	ikasturtean hasieran
	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleak tutoretza saioekin eta ordezkarien bileren bidez inplikatu 	Ikasleek	ikasturtean zehar
	<ul style="list-style-type: none"> Hezkidetza ikuspuntutik eskolako proiektuak denon artean begiratu. Horretarako laguntza eskatuko zaie OOGri, Gurasoen Elkarteari eta geletako ordezkariari. 	OOGk Guraso elkarteak Ikasleek Hezkidetza batzordeak	ikasturtean zehar

3. Helburu orokorra: Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	EKINTZAK	NORK	NOIZ
3.1. Genero-indarkeriaren sozializazio prebentiboa sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> Gela, patio edota jantokietan ematen diren genero ereduaren balore mugatzaileak zalantzan ipini, eta horiek onartzeak dakartzan ondorioz jabetu. 	Irakasleek Jantokikoek	ikasturtean zehar
	<ul style="list-style-type: none"> Gelan, arlo guztietan lan talde heterogeneoak sortzerakoan partaideen sexua ere kontutan eduki. 	Irakasleek Ikasleek	Ikasturtean zehar
	<ul style="list-style-type: none"> Geletan, genero ohizko rola flexibilizatzeko egoerak sortu, gizartean ematen diren jarrera desberdinak ensaiatzeko. 	Irakasleek Ikasleek	Ikasturtean zehar
	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen artean konfidantza, lankidetzeta eta elkar laguntza sustatzeko sentimenduak ezagutzen eta adierazten ikasi. 	Irakasleek Ikasleek	Ikasturtean zehar

	<ul style="list-style-type: none"> • Gelako kudeaketa eta arauak zehaztu genero ikuspegitik. 	Irakasleek Ikasleek	Zehaztu gabe
	<ul style="list-style-type: none"> • Jolasen bidez harremanak parekidetasunean sustatu. 	Irakasleek Ikasleek	Ikasturtean zehar
3.2. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria-mota guztiei azkar eta eraginkorki erantzuteko mekanismoak sortzea	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek edozein indarkeria motaren aurrean (genero indarkeria barne) talde moduan biktimaren ondoan ipintzea lortzea. Horretarako, indarkeria identifikatzen lagunduko dien material, proposamen edo programak sortu, hautatu eta eskura ipini. 	Hezkidetza batzordeak Irakasleek Ikasleek	ikasturtean zehar

4. EBALUAKETA ETA MEMORIA

Ikasturteko balorapena, ekintza bakoitzari ipini diogun ebaluaketa adierazleak kontutan edukiz egingo dugu. Ebaluaketan ere agertuko dira egin gabe geratu diren ekintzak, zergatik ez diren egin, sortutako zailtasunak eta hobetzeko proposamenak. Orduan erabakiko dugu proiektuan aldaketak egin behar ditugun ala ez. Ebaluaketa hau Eskolako Urteko Memorian sartuko dugu.

Gure proiektuan oinarrizko bi alde ebaluatuko ditugu:

- Eskolako partaide sektore guztiek (irakasleak, ikasleak, familiak, eskola orduetako edo eskolako orduz kanpoko langileak...) helburu nagusien barneratze eta lortze maila.
- Denen interesa, partaidetza eta ahalegina.

Ebaluaketarako erabiliko ditugun teknikak hauek izango dira: behaketa zuzena, egindako ekintzei buruzko erregistro orriak, galdeketak...

Ebaluaketak une desberdinetan egingo ditugu eta ekintzetako balorapenak jasoko ditugu.

Lehenengo ikasturtean amaitu ostean, jarduerak ebaluatuko ditugu, ondorengo adierazleak erabiliz:

HELBURU OROKORRAK	ADIERAZLEAK
1. Gure eskola hornitzea hezkidetzazko eskola-eredua era koordinatuan bultzatzeko egiturez eta pertsonez.	<ul style="list-style-type: none">• Ea bileretan parte hartu den.• Ea diagnosis egin den.• Ea formazio saioak egin diren.• Ea hezkidetzaren batzordea osatu den.• Ea koordinaketa dagoen estamentu guztien artean.• Ea arduradunari baliabideak eman dizkioten.
2. Eskola mistoan eraldaketa-prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskola baterantz joateko.	<ul style="list-style-type: none">• Ea curriculum berrikusi den.• Ea unitate, materiala eta baliabideak berrikusi diren.• Ea ikasleekin genero aniztasunari buruz hitz egin den.

	<ul style="list-style-type: none"> • Ea data konkretuetako ekintzak burutu diren. • Ea harremanetan jarri garen elkarte desberdinekin. • Ea hizkuntza idatzia egokitu den. • Ea generikoak erabiltzen diren. • Ea emakumeen adibideak bereziki jartzen diren. • Ea jarrera sexisten aurrean adi gauden. • Ea estereotipoen kontrako lanbideak eskaintzen diren. • Ea ahultasun egoeretan dauden ikasleak behatzen diren. • Ea hezkidetzeta plana estamentu guztietan zabaltzen den.
<p>3. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ea eskolako espazioetan genero balore mugatzaileak zalantzan ipintzen diren. • Ea taldeak egiterakoan genero ikuspegitik egiten den. • Ea genero ohizko rolen egoerak sortzen diren era kritiko moduan. • Ea sentimenduak ezagutarazi eta adieraztarazi diegun ikasleei.

	<ul style="list-style-type: none"> • Ea gelako arauak genero ikuspuntutik zehaztu diren. • Ea harremanak parekidetasunean sustatzen diren. • Ea ikasleak biktimaren alde jartzen diren.
--	--

Azpimarratu nahi izango genuke ebaluaketa prozesuan, bai urtero egiten dena eta baita proiektuaren amaieran egin nahi dugunean ere, eskolako hezkuntza komunitate osoak hartuko duela parte. Partaidetza, nola antolatuko den ondorengo eskeman agertzen den moduan izango da:

NORK	NOIZ	NOLA
Hezkidetza batzordea	Hilero (ostegunetan)	Programaren jarraipena akten bidez egingo da.
Zuzendaritza taldea	Hiruhilekoan behin	Programaren jarraipena egingo da
Pedagogika	Hiruhilekoan behin	Jarraipenaren berri emango da
Eskola kontseilua	Ikasturte bakoitzaren amaieran.	Ikasturte amaiera bakoitzean memoria bat egingo da, eta beste bat proiektuaren amaieran.
Guraso elkarteak	Ikasturte bakoitzaren amaieran.	Kontratatzan diren ekintzak eta begiraleak genero ikuspuntua kontuan izan behar da.
Jantokiko arduraduna	Hiruhilekoan behin	Jantokiko arduraduna eta begiraleek hausnarketa bat egingo dute euren esparruko helburuei buruz.

Berritzeguneak	Ikasturte bakoitzaren amaieran.	Proiektuaren arduradunarekin batera proiektuaren jarraipena egin.
----------------	---------------------------------	---

Azkenean, proiektuaren arduraduna eta zuzendaritza taldea arduratuko dira iradokizunak batzen eta hezkuntza komunitateari berri ematen.